

# Marijaiaren Bilbo amestua

*Edorta Jiménez*

Idazlea

Marijaiaren kantuko hitzak idazteko eskatu zitzaidanean burura atoan etorri zitzaidana Mikoleta izan zen. Kepa Junkerak egindako musikaren arira aste nagusiaren ideia adierazten dira: jendetza, denetarikoez osaturiko jendetza, kolore guztiak dantzaten. Testuan kantuaren berbak zelan sortu ziren adierazten da.

## **El Bilbao soñado de Marijaia.**

Cuando me pidieron la letra de la canción de Marijaia, inmediatamente me acordé de Mikoleta. Al hilo de la creación musical de Kepa Junkera, brotan las ideas principales de la semana grande: Jentio, de todos los colores y de todas clases danzando. En el texto se analiza la génesis de la letra y su relación con las vivencias festivas en Bilbao.

## **The dreamt Bilbao of Marijaia**

When I was asked for the words of the song of Marijaia, I at once recalled Mikoleta. Accompanying the musical creation of Kepa Junkera, the main ideas of Bilbao's Great Week spring forth: an agglomeration of people of all colours and classes dancing. In the text an analysis is made of the genesis of the words and their relationship to the festive experiences in Bilbao.

Marijaiaren kantuko hitzak idazteko eskatu zitzaidanean burura atoan etorri zitzaidana Mikoleta izan zen. Artean gogoan neukan haren elkarrizketa hura, nagusia eta morroiaren artekoa:

– Mikoletaren elkarrizketa.

Egungo egunetik ikusita, elkarrizketa gogorra da aipatzen dudana. Elkarrizketa horretan bada jaiaren izpiritua zertan definitzen duen pasarte da, hain zuzen ere, “erlojua eta goxa ez doaz batera” dioena. Beste testuinguru batean irakurrita baneukan ere, egoki zetorkidan esaldia da.

Nondik nora etorri ote zitzaidan Mikoleta? Buruko ganbaran guztiz eskura neukan eta, hortixek. Sasoi batean hemengo euskaldun kontziente gehienok arduratu izan gara gure Bilbo eta euskarearen arteko historian zeharrekoaz. Halandaxe, Mikoletaren ezagutza Bilboko euskararen historia ezagutzeko grinari lotuta dator, eta hortxe kokatu behar dugu. Behin eskuetara etorri Mikoleta, eta hor geratu zen haren gomuta, ganbara, inoizko baten erabili behar izatekotan be guztiz hartzeko moduan.

Bilboko euskaldunek, euskara irakasten Bilbon jardun izan dugunok batez ere, umezurtz sentitu izan dugu gure burua. Historian atzera eginda mugarriak, bidargiak, erreferentziak behar genituen.

Batzuren ustez euskara aspaldi desgertu zen Bilbon; beste batzuk, oster, sekula ez dela desagertu frogatu gura genukeen. Hor dago, esate baterako, Iñaki Gaminderen lana. Eztabaida ez dago egungo gatazketatik libre, gatazka horixei loturik baino. Euskara hain aintzina galdu bazen, galdu, zertan hasi orain hura berreskuratzen? Gaztelera hitzunek latina berreskuratu gura izango balute moduan litzateke hori, diote batzuek. Arrazoitzeko modu honek atzetik dakarzanak hizkuntza-politika eta politikaren hizkuntzan sartzen dira eta, begoz hortxe, isilean.

Mikoleta eta bera legezko beste batzuen bila ibiltzea, azken batean, Bilbo euskaldunberriaren bakardade-sindromearen aurka egitea zen. Umezurtz sindromea, berrikerietan ote dabilen ez dakienaren sindromea izaten euskaldunberriarena. Eta, azken batean, politikagintza zertan den ulertzeko modu ezberdinak. Egoki deritzot Mikoleta aipatuaz hasteari, gure gaurko gaia gure Bilbo imaginarioa denez.

Inoizko batean Bilbo euskalduna izan zen. Mikoleta froga ona zen. Eta Bilbo euskararen bidean ttipi-ttapa doa aurrera euskalategi eta eskoletan. Bilboko jatorrizko euskara mintzatua, oster, betiko galdutzat eman genezakeelakoan nago.

Beraz, “goxa eta erlojua ez doaz batera, bata edo bestea zoratu egin da” idaztean jaiaren definizioa eman gura izan nuen, bai, baina Bilbo euskaldun zaharra gogora ekarriaz.

Mariajaiaren kantuaren sorrerakoetara itzulita, Kepak kantua egiteko eskatu zidanean musika erakutsi zidan. Hura entzun eta hitz batzuk behingoan etorri zitzaizkidan.

Hara hara hara  
 Hara nor datorren  
 Hara hara hara  
 Gure Marijaia.

Eta hitzok nire orduko kezken harira datoz. Hain zuzen ere, Bilbon bertoko euskerea sekula santan berreskuratuko ez bada ere, ezin itxi dugu, ez dugu itxi behar, ez, denon artean sortzen-sortzen dihardugun euskara bizitasun bagekoa izan daiten. Izan bedi behintzat bizia. Eta zuzena. Eta niretzat zuzentasuna eta bizitasuna “hara!” horretan dago. Bizitasuna, hoba ez, beste honetan:

Ene ene enen  
 Oi ai ene bada

Bilbon euskara bera, biziagoa nahiz hilagoa, ez da hizkuntza bakarra izango. Beti izango dira beste batzuk. Igarlea ez naiz, ostera, eta ez dut etorkizuna aipatu behar. Esan, beste barik, euskaraz berba erdirik ere ez dakienik era badela, baina denon esku dagoela hori betiko horrela ez izatea.

Euskaraz zertxobait esan, eta esaten dutena ulertuaz esan gura izango luketen horientzat egin nuen hain erraza kantua. Leloa batez ere (canciones de lelo)

Mari, Mari  
 Marijaia dator  
 Mari, Mari,  
 Marijaia dator.

Behingoz erdaldunik erdaldunena bera ere esaldi bat ikasteko gai izan ledin nahi nuen. Ildo berean ulertu behar dira beste pasarte batzuk ere, hala zelan:

Abuztuan Bilbon  
 Denok kalera

Sinplea ematen du. Kepak berak horrelaxe nahi zuen. Argi genuekan-eta denok kantatzeko moduko kantua behar zuela izan. Haatik, nire gizarte ikuspegiak eskatzen zidan mezua ere sartu gura izan nuen. Orduan gogora Bilboko lehenengo aste nagusiak zer izan ziren etorri zitzaidan.

Abuztuan danok  
 Zahar eta gazte  
 Gizon eta andre  
 Jaietan

Horixe izan zen-eta Bilboko jaien ezaugarri nagusia: jendetza. Denetarikoek osaturiko jendetza. Bazirudien inork ez zuela, zahar nahiz gazte, andra zein gizon, etxean geratu. Kalea nagusitu zen. Jendetza horrek haatik, gizabanakoz osaturikoa zen. Norberak norberarenak kanporatu nahi zituen. Eta egin egiten zituen.

Bilboko lehenengo jaiak etorri zirela, artean jendeak Francoren garaiko jaiak zitueen gogoan. Jai ofizialak, probintziakoak, endekatuak, antzerkiaren eta musikaren arloko programazioen aldetik Madrilen mendekoak, eta zezenketetara lar lerratuak. Eta orduan, hura miraria, txoznak sortu ziren. Eta txozna-arteko giroa etorri zen. Giro horretan “kolore guztiak dantzaten” ikusten ziren.

Hitz horiek –kolore guztiak dantzetan- idatzi nituela, emakumezkoen txoznak nituen gogoan, ekologizaleak nituen gogoan, gay jendea nuen gogoan, politikaz arduratzen direnak eta presoen aldekoak ahaztu barik; hala bada, arrosak, gorriak, berdeak, zuri-baltzezkoak, denak nituen gogoan. Halandaxe, bardin-bardin idatz nezekaean “ostadarra da gure bandera”. Aldarrikapenak kalera irten ziren Bilboko jaietan. Eta “alkar hartuta” esakuneak zera esan gura zuen, koloreen arteko kontsentsua gura nuela nik.

Azken horrek nik neuk ezagutu dudan Bilborekin zerikusia du, bizirik segitzen duenentz ez dakidan Bilbo, Alde Zaharreko Bilbo, gauetako Bilbo; Bilbo askeagoak Bilbo erdigunekoak eta egunezkoak baino. Jakin badakit nire Bilbo oso mugatua dena, baina errotua da, hala eta guztiz.

Bizkaiko herri euskaldunetakoek Atxuri genuen atrakaleku Bilbon. Bertara ekarten gintuzten CAV konpainiako busek, bertara Ferrocarriles Vascongadosek. Han hartzen zuen amak kafea, han taxia, han hasten eta amaitzen zen gure bidaia. Behin Atxurira ailegaturik, bertan dago Alde Zaharra. Erosteke lekua gure herrietako askorentzat. Ama eta biontzat baita. Honen harira, esan behar dut Marijaia hitzari hasiera hasieratik iritzi izan diodala egoki. Gure ama-amamentzat ‘mari’ aurrizkia bizienetako zen. Alaba jaiio zenean ere zenbatetan ez ote zioten esaten “marisorgin”, “marizikin” eta horrelakoak. ‘Mari’ aurrizkia maitasunezkoa da nire irudimenean.

Gogoko dut Marijaia. Gogoko izena. Gogoko irudia. Izenarena oraintxe esan dut. Irudia behingoan esango dut: ama dakarkit gogora. Estimatzekoa da Mari Puri Herrerok egin duen lana. Musugorri, ezpainandi, pottola, Marijaia egungo neskeder-eredutik hurrun dago. Gogora Erramun Landak sasoi batean egiten zituen kartelak ekartzen dizkit gogora. Top-modelak eta anorexia –eme nahiz arren artekoa– nagusitu diren honetan Rabelais aireko irudien egile dira.

Marijaia ez nuen bilbotar ikusten. Bilbora datorrena baino. Ze, jaiak leku askotan egiten dira, eta danetan egon liteke Marijaia jainkosa.

Marijaia bera,  
Gure Marijaia  
Bilbora etorri da  
Aste Nagusira.

Hau umeen irudimenari lotzen diot. Umeek hor ikusten dute Marijaia etortzen, eta halako batean joaten ere.

Aste hau pasata  
Barrero joango da.

Beraz, sorginkeriaren kontua dirudi. Umeek Marijaia erre egiten dutela ere jakingo dio. Bost horieei gaur erre eta bihar berriro agertzean logika hausten bada. Magikoa da kontu hau. Inportantea, guztiarekin ere, Marijaia bilbotarra ez dela azpimarratzea da, jaiak ez baita inongoa, edonongoa eta nongurakoa baino. Jaiaren izpirituak bisita egiten digu. Horregatik idatzi nuen “Marijaia bera” etorri dela. Beste edozein izpiritu etor zitekeen. Baina ez, nagusia etorri da: Marijaia.

Amaitzeko, ezinezko zen Bilboko herriak kantatzekoa den kantua “bilbotarkeria” bat edo beste ez sartzea.

Aste Nagusia  
Bakarra dago  
Hamar gauekoa  
Munduan.

Esan gura legez, “gulakorik, inon ez”. Eta ez dakigu gu bezalakorik beste inon baden ala ez den, baina guk gure buruari aupa eta biba. Gainera, gogoa izan behar da egia dela, Aste Nagusiaren hasiera aurreratu guran Begoñako Andra Mariaren eguna aste barruan zelan datorren, egun gehiago edo gutxiagoko Aste Nagusia izaten dugula.

Begoñako Andra Mari behin kontestu honetan aipatuta, interesgarri izan liteke hura, kristaua, eta oraingo Mari pagano hau elkarri alderatzea. Bataren-ganako debozioa beheraka doala, bestearen aldeko liturgiak egundoko indarra du. Eta irudi bien artean apenas dagoz berrehun metro.

Bilbotarkerietan sartuz gero, gatx urtetea. Marijaia etorri eta joan egiten dela nuen gogoan. Herriarenak izan ziren lehenengo Aste Nagusi haietan Marijaia kalean behera etorri izaten zen; haatik, orain errekan gora etorri izaten dela eta idatzi nuen:

Uger, uger,  
Bilboko uretan  
Mari, Mari,  
Marijaia dator.

Bilboko uretan uger datorrela esatean edari apartsu horixe neukan gogoa. Errekako ura eta Bilboko ura erabiliaz joko egin gura izan nuen. Honen harira, itzarrotekoa da honezkero betiko geratuko dela Marijaia errekan gora etorrarazeko usadioa. Bestela agur gure kantua.

Agur gure kantua diot, eta horrela esatean “denon kantua” dela esan gura dut. Musika Keparena da, berak sortu zuen eta. Berbak nireak ote diren, ez dakit. Nik idatziak dira, baina beste batek egin izan balitu bezala ere bizi ditut berbak. Eskua izan naiz. Musikak berak, Marijaiaren itzalak, jaietan izandako

bizipenek, nik dakit ba zerk, berbok ekarri zizkidaten. Himno bihurtu ahala, gero eta ez-nireagoak dira. Zorionoz. Ez naizelakoa himnozalea. Noiz edo noiz himno honek eta beste horrek hunkitu egiten banau ere.

Amaitzeko, amesten dudan Bilbo berrian umeen himnoak hau edo Athleti-cena izan litezen nahi nuke. Amesten dudan Bilbon umeen ametsetako pira-ten bandera izan ledin gura nuke. Hori bai, jaietan, Marijaia ikusi eta behin-goan, umeen bandera amestua ostadarra izan ledin nahi nuke. Gero besteok, nagusiok, den-dena -astegunak eta asteburua, lanaldia eta oporraldia- zatika-tzen dugun nagusiok, urtean behin egiten dugun bakearen irudi legez balio lezan nahi nuke. Eta urtean behin izaten dugun baketze hori egunen batean luzatu eta luzatu, eta sekula amaitu ez, eta hamar mila urteko Aste Nagusia egi-tera ailagatu bagina, pozik ni. Horetarako ezinbestekoa litzateke, ostera, kolo-re guztietakoek leku izatea gizartean. Aste Nagusian izaten dugun legez, git-xienez. Kasu horretan, himnorik behar ez eta, Marijaiaren hau ere ahaztu ahal-ko genuke.